

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektua martxan jartzeko hainbat baliabide behar ditugu:

Lehenik, giza baliabideak behar ditugu, hauek, bi langile izango dira. Bi hauek, gure lokalean egongo dira web orritik eskatutako eskariak prestatzen, sare sozialak kudeatzen edota Youtubeko bideoak editatzen eta igotzen. Esan ahal da hauek izango direla gure *Community Manager*-ak eta horretaz gain bidaltzeko paketeak prestatuko dituztenak.

Gure lokala, Deba eraikinean egongo da eta hor dauden ofizinetako bat alokatuta izango dugu. Txikienetakoa izango da talde txiki bat garelako eta 2 mahai jartzeko eta horien inguruan 6 aulki jartzeko ez dugulako ezer gehiagorik behar. Gainera gutxitan kointzidituko dugu 6rok lokalan, 4 fundatzaileen artean banatuko ditugulako hitzaldi eta tailerrak. Gainera langileak ez dute 8 ordu lan egingo 4 baizik.

Langile hauek bere lana egin ahal izateko, 3 ordenagailu(Windows SOrekin), 2 mahai, 6 aulki eta inprimagailu bat erosi beharko dugu.

Gainera ordenagailuekin, youtubeko bideoak editatu, igo eta bere audientzia kontrolauko ahalko dugu.

Enpresa hasteko gauza hauek ezinbestekoak dira eta horregatik 5000 euroko mailegua eskatuko dugu gure proiektua hasteko eta gure produktuen lehenengo txanda atera ahal izateko. Horrez gain, foru aldundiko 4003 eurotako diru laguntza jasoko dugu hilabetero eta 250 euro gure babesle bakoitzarengatik(2 izango ditugunez 550 euro hilabetero haiei gure hitzaldi eta bideoetan aipatzeagatik).

Honetaz gain, gu geu sortuko dugu webgunea IKT-ko ikasgaien erakutsi digutelako nola egin. Sare sozialak ere sortuko ditugu gure Z Generazioko adimenarekin. Eta gure aplikazioa kanpo enpresa bat ekoiztuko duenez, haien lokalatik pasatu gara noizean behin gure aplikazioari buruz galdetzeko.

Printzipioz hau da behar dugun guztia lan egiteko Youtubeko edukiak sakelako batekin grabatuko ditugulako, gaur egun mugikorrek kalitate handikoak dira eta honi esker kamera batean inbertitzea saihesten digulako.

Desde 47m2

Plaza de aparcamiento incluida

